

Erakundeak 1.086,45 hektarea baso kudeatzen ditu guztira

## Kutxabankek 83 hektarea baso birlandatuko ditu 2021ean

- 2020tik hona 222 hektarea baso baino gehiago garbitu dira
- Kutxabanken jabetzako basoek 570.000 zuhaitz baino gehiago dituzte, 13.656 tona CO2 xurgatzen dituzte, eta Erakundearen isurpenak erruz konpentsatzen dituzte

**2021eko abuztuaren 9an.** 2021ean zehar Kutxabankek **83 hektarea** baino gehiago birlandatuko ditu **Basoinsa** eta **Gipuzkoako Baso Jabeen Elkartearen** laguntzarekin kudeatzen dituen basoetan. Baso-berritze hori 2020an egindakoari gehituko zaio, urte hartan **87 hektarea** birlandatu baitziren.

Gipuzkoako mendietan baso-berritzeko ahalegin handia egiten ari dira, 2020tik **217 hektarea** baino gehiago moztu baitira. Zuhaitz asko *Intsinis pinu* espeziekoak ziren, gaixotasun bortitz batek joak, eta Markesbaso (Azpeitia-Zestoa), Ardume Amestigorrieta eta Aiatxartea (AIA) basoetan zeuden.

Kutxabankek kudeatzen dituen basoetako garbiketa-lanak dira urtero egiten diren beste ekintza garrantzitsu bat. 2020an **94 hektarea** inguru **garbitu ziren**, eta helburua 2021ean **128 hektarea** garbitzea da. Pistak kontserbatzeko eta egokitzeko lanak ere egiten dira.

Kutxabankek **1.086,45** hektarea baso kudeatzen ditu Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta biodibertsitatean aberatsak diren ekosistema ugari daude horietan. Kudeatutako eremu guztian, **971,72** hektarearen jabea da bankua; horietatik, 932,86 hektarea zuraren baso-ustiapen jasangarriko basoak dira, eta 38,86 hektarea landaredi autoktonoz estalitako zelai eta mendiak, batez ere sastrakadiak, dira, eskualde bakoitzeko ekosistemen berezko biodibertsitate naturalarekin.

Kutxabankeko mendien % 80 baino gehiago baso-kudeaketa jasangarriko PEFC sistemari atxikita daude. Mendi horien kudeaketa UNE 162.000 Arauan ezarritako Baso Kudeaketa Jasangarriaren adierazleak betez egiten da. AENOR da akreditazioa lortzeko adierazleak betetzen diren edo ez aztertzen duen erakunde ziurtatzailea.

Kutxabanken jabetzakoak diren 971,72 hektarea horietan **570.000 zuhaitz** baino gehiago daude, eta horiek **13.656 tona karbono-dioxido** xurgatzen dituzte eta Kutxabanken isurpenak erruz konpentsatzen dituzte, 2020an 1.272 tona CO2 isuri baititu.

Beraz, Kutxabankek **12.384 tonako 'karbono-aztarna negatiboa' lortu zuen iazko ekitaldian**; izan ere, Erakundearen baliabide propioek karbono-dioxido gehiago xurgatu zuten atmosferara isuri zuena baino, erregai fosilen kontsumoa (gas naturala eta gasolioa), elektrizitatea eta langileen garraioa kontuan izanda.